



TXARANGAK INAUTERIETAKO ESENTZIA

Goizean goizetik, gauera arte txarangetako kideak gogor aritzen dira Inauterietan euren doinuak zabalduz > 6

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Asteartea
2008-02-05

VIURTEA 1.355.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA



WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Ttenetek, Kirikiño eta Txiribitu aisialdi taldeetako kideak atzo dantza saioak eskaintzen. I. GARCIA

AZKEN TXANPARA IRITSI DIRA

INAUTERIAK 2008 Atzo aisialdi taldeen dantzek izan zuten protagonismoa; gaur karrozek eta konpartsek 4-5

Leire Olaberriak lau urre lortu ditu Espainiakoan

IKAZTEGIETA Palman jokatu berri dute Pista Txapelketa; Olaberria izan da txapelketako izarra erakutsi duen maila onarengatik 7

Erlantz Gonzalez garaile, Euskadiko Iraupen Eski Txapelketan

TOLOSA Alpino Uzturre taldeko eskiatzailea kadeteetan eta Skating eran izan da onena, Candanchun jokaturako txapelketan 7

IPARRAGIRRE
SACARDOTEGIA

Apirilaren 26 arte ZABALIK eta botilan arte osoan

Osifraga auzoa / Hernani 943 55 03 28
Asteazkenetik larunbatera gauz zabalik, larunbat eguerdian ere bai
www.iparragirre.com



A Argazki zaharra



30. eta 60. hamarkadetako Inauterietara begira

TOLOSA ■ Ezkerreko argazkian 60. hamarkadara egin dugu jauzi. Garai haietan Ori ibaiari ere probetxua ateratzen zioten Inauterietan. Eskubi-

koa, 1931. urtekoa da. Ijitoz mozorrotuta ageri dira, gurdi eta guzti. Egun horretan hartza ehizatu zuten. TOLOSAKO UDAL ARTXIBOA

» GARRAIO PUBLIKOA

Gaur

■ Hiribusa.

- San Frantzisko- Geltoki- Berazubi-lurre- lurreamendi- Usabal-industrialdea- Amarotz- San Blas- Iparragirre- Zaballarreta- Kondea- neko aldapa- Klinika- Zumalakarregi- San Frantzisko: 07:30etik 22:00etara.

- Zubi Berria- Usabal-industrialdea- Amarotz (behean)- Kondea- neko aldapa- Zubi Berria 10:30etik 14:30era eta 16:00etatik 22:00etara.

■ **Tolosaldea Bus.** Gaueko zerbitzu berezia:

- Tolosa (Zumardi Txikia)- lurre- Amarotz- Alegia- Amezketal- kaztegieta 00:00etan, 02:00etan eta 03:30ean.

- Tolosa (Zumardi Txikia)- lurre- Amarotz- Ibarra- Berrobi- Eldua- Elduain- Berastegi 01:00etan, 02:45ean eta 04:15ean.

■ TSST. ZERBITZU BEREZIA:

Tolosa- Donostia zuzenekoak: 07:10, 08:20, 09:30, 13:55, 15:00, 19:10. Donostia- Tolosa zuzenekoak: 07:45, 09:00, 13:10, 14:30, 18:30, 19:50. GAUEKO ZERBITZUA: Tolosa- Irura- Villabona- Andoain- Lasarte: 00:00etatik 06:00etara orduero. Tolosa- Añorga- Rekalde- Donostia: 00:00etatik 07:00etara, orduero. Donostia- Lasarte- Andoain- Villabona- Irura- Tolosa: 21:15, 21:30, 21:45, 22:15, 22:45.

«Nahiz eta tolosarrek lan handiagoa hartu prestatzen, denak gara inauterizale»

LIERNI BALERDI ▶ Inauterizalea

Tolosa ▶ Tolosarra ez bada ere, bertakoek bezala bizi ditu albizurtar honek Inauteriak eta beti ospatzen ditu festa handi hauek.

ESTI EZEIZA

Eskualdeko herritar gehienek bezala, txikitatik ezagutzen ditu Tolosako Inauteriak, Lierni Balerdik (Albiztur, 1984). Urtero-urtero ospatu izan ditu jaiak, eta ez du bat bera ere galdu.

Zer dira zuretzat Tolosako Inauteriak?

Ongi pasatzeko eta gozatzeko egunak. Norbere buruaz eta gainontzekoetaz barre egiteko aukera ematen dutenak.

Zer da gehien gustatzen zaizuna?

Ez dakit, dena gustatzen zait. Dena den, egunik onenak osteguna eta igandea dira. Karroza eta konpartsak ikustea gogoko dut eta zezenetara joatea ere bai.

Eta gustatzen ez zaizun zerbaitek al dago?

» DI-DA BATEAN

- **Falta ezin den edari bat.** Lejia.
- **Egunik onena.** Zaldunita
- **Eguna edo gaua.** Eguna.
- **Doinu bat.** Txarangen edozein.
- **Kalea edo taberna.** Egunez kalea, gauetz taberna.
- **Hausterre eguna.** Indarrak eta loa berreskuratzen hasteko garaia.

Orain momentuan ez zait ezer etortzen burura. Parrandaren ondorengo biharamuna ez zait gustatzen, baina uste dut hori ezin dela aldatu.

Tolosaldekoak tolosarrak bezain inauterizaleak al dira?

Agian tolosarrek lan handiagoa hartzen dute Inauterietan prestatzeko, baina eskualdekoak ere oso inauterizaleak gara. Askotan esaten da, egun hauetan tolosarrak bagina bezala dela. Gainera txikitatik ezagutzen ditugu, eta gureak ere badira neurri handi batean.

Zer da jantzi duzun mozorrorik gustukoena?

Ez dakit gustukoena den, baina ba-



HITZA

rregarriena behintzat aurtengoa izan da. Amonaren arropa zaharrak jantzi ditugu soinean eta etxeko andre mozorrotu gara. Elkarrei adarra jotzeko mozorro proposa.

Zein mozorro ez zenuke jantziko berriz?

Ez dakit, agian, Mini xaguarena. Nahiko txikiak ginela jantzi genuen, eta polita bazen ere, hotz handia pasa genuen. Horregatik, badaezpada ere, ez nuke jantziko.

Mozorroak erosi edo egin, egiten dituzu?

Txikitik, oihala erosi eta josi egiten genuen, baina azken urteetan, jada eginda daudenak erosten ditugu. Izan ere, beti azken momentuan ibiltzen gara, eta ahal dugun bezala moldatzen gara. Hala ere, aurtun, etxean genituen trapuekin ateratu gara.

Zerk bereizten ditu Tolosako Inauteriak, besteengandik?

Hemengo jendeak duen imajinarioi eta lan egiteko gogoari esker, Tolosako kaleetan ikusi daitezkeen mozorroak eta karrozak ezberdinak dira. Beste leku askotan, diru gehiago gastatzen dute, eta mozorro ponpoxoagoak egiten dituzte, baina hemengoak orijinalagoak dira, eta barrregarriagoak. Gainera, jai herrikoagoak ere badirela esango nuke, hau da, etxeko trapu zaharrek ere lasai ateratu zaitezke kalera.



Zezena lotzen zuen soka blai eginda zegoen bukaeran

Inauteriak » Sokamuturrak atzo bezala, gaur ere bere lekutxoaz izango du Plaza Berrian, eguraldia lagun, 10:30etik aurrera.

A. IMAZ - N. URBIZU

Inauterietan txarangekin gozaten duen jendea dagoen bezala, zezenekin gozaten duenik ere bada. Horretarako aukera eskaini zuen sokamuturrak 10:30etik aurrera Plaza Berrian; zezen-zaleak bertan bildu ziren zeruari jaramon handirik egin gabe.

Gazteak eta mutilak

Zezena kamioitik 10:30ak inguruan jeitsi zuten sokatik tiraka. Behin beheran zegoela soka airean geratu zen eta plaza erdiko kioskotik eta kale kantoietatik gazteak urtildu ziren zezenaren aurrera, mutilak gehienak. Hauek izan ziren haruntza eta honunza korrika ibili zirenak, euriaren ondorioz irristakorra zegoen lurzoruaren gainean. Korrikalariez gain, zezenak ere zutik egoteko arazo bat baino gehiago izan zituen, kolpe-

ren bat jaso zuelarik. Ikusleen artean berriz denetarik aurkitzen zen atzokoan Plaza Berrian; neska, mutil, gurasa, haur, heldu, parrandazale, goiztiar...

Pattar zezena eta sokamuturra

Gaur ere zezenek izango dute beren tartetxoa Tolosako Inauterietako azken egunean.

Goizeko lehen orduetan, 8:00etan hain zuzen ere, pattar zezena deiturikoa egongo da zezen-plazan. 10:30ean, sokamuturra egingo dute berriz ere Plaza Berrian eta arratsaldean berriz, zezenak zezen-plazara itzuliko dira 16:30etik aurrera, txaranga eta txistulariek giroa alaitzen duten bitartean.

Zaila izango da beraz zezenak ikusi nahi eta ez ikustea gaurkoan. Gustoko ez dituenak ere ez du egun erraza izango gaurkoa.



Plaza Berrian sokamuturra antolatuta zuten atzokoan 10:30ean. Euriak zorua labainkor jarri bazuen ere hainbat gazte aritu zen zezenaren aurrean jarririta, hara eta hona korrika eginaz. N. URBIZU/A. IMAZ

HAU GAZTERIA...!

Gipuzkoan 50.000 gazte baino gehiagok lanpostu bat dute

JAKINA

Euzko Lehen Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Historia Politikalari Departamentua
Departamento de Política Social





ETA EGUZKIA AGERTU ZEN

Inauteriak» Euria zela-eta hasiera batean zaila ematen bazuen ere, aisialdi taldeek beraien emanaldiak egin ahal izan zituzten jendaurrean.

ERREDAKZIOA

Bazindien eguraldiak atzoko egitarapamendua, baina azkenean ostareak azaldu ziren eta herriekin eguzkia. Aisialdi taldeek, behintzat, beraien ikusizunak erakutsi ahal izan zituzten San Frantzisko etorbidean zehar. 11:00ak inguruk izango ziren. Aisialdi taldeetako kideek ahal zuten bezala aterpetan zauden sartuta denden eguzki-olharen azpian, etxebizitzaren ataritan... Bitartean, San Frantzisko etorbidea butsiak

zegen. Gauzak horrela, talde guztiak Hirukide-Jesuitinen frontoan elkartu ziren, bertan diantza emanaldiak egitekoan. Baina, pixkana, atertzen hasi zen eta azkenean, eguraldiak onera egiten zuela ikusirik, berriro joan ziren talde guztiak. San Frantzisko etorbidera. Ordu erdi lehenago hasi ziren kaleko pixkana, ka betetzen joan zen jendea eta azkenean aisialdi taldeek beraien emanaldiak egin ahal izan zituzten jendakoren aurrean.

Dantza landuak

9:00 lagun inguruk hartu zuten parte sei aisialdi taldeetan. San Frantzisko parroikia erreferente hartuta, lehenengoak Txiribitiloak izan ziren. Denboraren makina gai bezala hartuta, garai ezherdianetako pertsonaiak agertu ziren, bokoizta bere musika eta dantzarekin, gero denek bat egiteko bonibil batean. Hurrengo taldea San Bernar dok izan ziren. Gogel abesbatza izan zen haurrentako gaia eta musikalari eta hizari abili zuten ikusizun merako. Atsedena taldekoek zuzen emanaldirako. Ipocak, Eduarne Zuri, Peter Pan eta abar izan ziren dantza eskaini zituztenak.

Trentek taldea Grease filmean oinarritu zen beraien emanaldia gauzatzeko. Kalearen zati handi bat hartu zuten eta alde batera eta bestera aritu ziren dantzan, jarriti koloretasekin. Hurrengo taldea Kazkaharra izan zen. Euskal mitologiaren oinarritu. Tarta, Mari, Galtzagorri eta lamiak aritu ziren dantzan. Ilaran azkeneak Kirikiho taldekoak izan ziren. Harriketarrak bezala moztu eta, historiazko dantza marroxoak egin zituzten. Talde guztiak, azken finean, ondo landutako dantzak egin zituzten eta eguzkiaren eta jendea inguratutik, beraien lana erakutsi ahal izan zuten aurtengo Inauterietan ere.



Atsedena taldeko Disney-ren pertsonaiez mozorroluta egin zuten ikusizuna. Grease irudikatu zuten Trentek taldekoak. L. LIZENA



Kazkaharrikoek euskal mitologiaren pertsonaiak erabili zituzten beraien emanaldirako. L. LIZENA



San Bernardo taldekoek peluka handiak eta tunika koloretuak erabili zituzten gospel abesbatza irudikatzeke. L. LIZENA



Kirikihoak Harriketarrez mozorroluta ziren beren dantza emanaldirako. L. LIZENA



Trentek taldeko Grease irudikatu zuten eta Txiribitiloak denboraren makina hartu zuten gai bezala emanaldirako. L. LIZENA

Lehen begiratuko maitasuna

euskaltel **3**

Eskuratu Motorola K1 hau 0 €-ren truke

Eta, gainera, hitz egin zure maitasunarekin **3** orot zuren bukatuak ordaindu, betiko.

www.euskaltel.com



A. IMAZ - N. URBIZU

Goiz goibela Tolosan. Euri zaparradak aldiro, baina Tolosako Inauterietako txarangen egun ofiziala ere bazen atzo. Musika da Inauteri hauetako protagonistetako bat, eta falta ezin dena, ezin omen baitira ulertu Tolosako Inauteriak kaleko musikarikgabe.

Hamabost bat txaranga ibili ziren kaleetan zehar, bakoitza bere elkartetik aterata. Zaila zen txaranga bat bakarrik entzutea: akordeoiak Tarragonetarren eskutik, Terete, Ero Etxe, Berazubi, Aiz Orratz, Gure Kaiola, Ortzadar, Poca Tripa eta Tolosano (aurtengo atzoko txaranga ofizialak azken hirua). Guztira bederatzita, baina Inauterietan zehar ibilitakoak 18 dira: aipatutako ez gain, Urdiña-Txiki, Sukalde, Alcoyano, Txapel Haundi, San Esteban, Txinparta, Pintxana, Kabi Alai, Kabila eta Iurre. Bonberenea, Oria eta Nekaezinak, adibidez, ere aritzen dira jotzen Inauterietan.

09:00etan ateratzen dira kaleetara, eta eguerdialdera hamaiketako egiteko ohitura dute, beste bi orduz-edo, jo egin behar baitute. Bazkaldu ondoren, berriz ere musika tresnak hartu eta jo beharrekokoak jotzen dituzte, zezenetarako bidean, eta baita barruan ere.

Betiko egitaraua errespetatuz

«Diana, Zazpigarrena, Hamalau-garrena!»... Txaranga guztiak desberdin doaz atonduta, baina denek abesti berdina jo behar dituzte. Ortzadar txaranga kuzendariak argitu zuenez, «kantu ofizialak 23 dira. Elkarrekin hauez gain beste batzuk dituzte, eta hauek ere kontuan hartuta 96 kantu daude. Baina ez ditugu denak jotzen, Inauterietako beste 10 egun beharko genituzke!».

Egitaraueko kantuetatik aparte zerbait joz gero, isunak daude, eta aurtun 300 euro ingurukoa da. «Elkartean bertan, bazkaldu ondoren edo gure artean gaudenean nahi dena jo daiteke, eta nahi adina, baina kaleetan eta jendearentzako egitaraua zehatza dago, orduetgia bezala».

Urteak eta urteak daramatzate egitarau beretsuarekin eta haien esanetan «ez gara nekatu: gustuko bidean aldaparik ez». Eta ateratzen ez ote diren aspertu galdetzerakoan, honakoa izaten da erantzuna: «Eta txaranga gabe? Tolosako Inauteriak ez lirake berdinak izango, ezinezko izango litzateke».

Kalejirak dira gehienak, baina horiez gain, arrunta da entzutea vals-en bat, habanarak, edota polkak. Denak beti ere, jendeak ezagutzen dituztenak dira.

«Gustura» egiten duten lana

Tolosako Inauteriak urtean behin dira, eta txaranga ikusteko eta entzuteko aukera egunero izaten da, bai ofizialen eskutik eta ofizialak ez diren eskutik ere.

Txaranga batzuk jotzeko ordaindu egiten dute, txaranga



Goian Ortzadar elkartean gosaltzeko garaian. Beheran, Poca Tripako tronpetajotzaile bat goizean goiz. ASIER IMAZ

Inauterietako egun guztietan entzun eta sentitu daitezke Txaranga: Tolosakoak guztiak, eta giroa jartzeaz arduratzen dira. Goizean goizetik hasi ziren atzo horretan, Txaranga egun ofizialean, hain zuzen ere.

Jai hauen esentzia



Tolosako atzoko txaranga ofizialeko bat izan zen. N. URBIZU



Galtzaundi jotzen, Tarragonakoak, akordeoiekin eta ahotsarekin. A. IMAZ

» ENTZUNGAI

GAUR

■ **08:00.** Hamar txaranga ofizial, bata bestean atzetik zezen-plazaraino joango dira Pattar Estebanera. Gero kalejira izango da.

■ **11:00.** Plaza berrian San Esteban txaranga (Sokamuturrekin batera).

■ **16:00.** Kalejira Kabila, Veleta-Aiz Orratz eta Txapel Handi txarangaekin (Plaza Zaharretik zezen-plazara).

■ **16:30.** Txaranga eta txistulariak Zezen-Plazan. Ondoren, kalejira.

■ **19:00.** Berdura plazan dantzaldia: Kabila, Veleta-Aiz Orratz eta Txapel Handi txarangaekin.

■ **23:30.** Incansables zaharrak.

■ **00:00.** Sardinaren hiletako partetsaren irteera Gure Txokoa txarangaekin.

musikari batek esan zuen bezala: «Bazkaltzeko edo hamaiketakoak egiteko dirua behar da eta gure poltsikotik jartzen dugu. Udalak dirulaguntza bat ematen digu, baina ez da nahikoa». Esaterako, «txarangan jo duen baten bat hiltzen denean eskela ordaintzeko ere» erabiltzen dute diru hau.

Jendea ere «gustura»

Edozein inauterizalek esango du txaranga dela festa hauetako esentzia, eta hala da, proportzioan ez dago hainbeste txaranga duen beste herririk. Jendea honekin ohituta dago, betidanik hala izan delako, hemen tradizioa delako, alegia (Txinpartak aurtun 78 urte beteko ditu). «Musikarik gabeko Inauteriak imaginaezinak dira», «Tolosan daukagun musika txapela kentzeko modukoa da»... Txarangaeko parte-hartzaile askok ez dute Inauterietan besterik egiten: jo. «Bestela zer egingo genuke? Hau dagukegin nahi duguna».

Txaranga goiztiarrak dira, baina haiekin batera, balkoiara ateratzen den jendea, hauek ikusi eta hobe entzun nahian. Txaranga hori jakinda gusturako jotzen dute, baina bestela ere, haien artean «oso ondo» pasatzen dute, musika izateaz gain, lagunak ere direlako. Eta inportateana: Inauterietan parte sentitzen dira.

Leire Olaberriak urrezko lau domina irabazi ditu Espainiako Pista Txapelketan

Ikaztegieta » Palman jokatu den txapelketako izarra izan da; Munduko Kopako azken proba prestatzea du orain xede.



Leire Olaberria taldekideekin, Palman jokatutako txapelketan. HITZA

ERREDAKZIOA

Leire Olaberria ikaztegiatarrek guztira 4 urrezko domina lortu ditu Palman (Herrialde Katalanak) jokatuko den Espainiako Pista Txapelketan.

CESPA-Euskadi taldeko Leire Olaberriak Euskadiko Selektzioarekin hartu du parte Espainiako Txapelketan. Emakumeen puntuazioan lortu zuen lehen urrea txapelketako lehenengo egunean. Bigarren urrea Scratch proban lortu zuen, eta azken jardunaldian, Jazarpin lasterketako finalean, Vilajosana kataluniarrari egin zion aurre Olaberriak eta 4 segundoko aldeatera zion. Keirin proban, berriaz, Helena Casasi gailendu zitzaion.

Euskaldiko Selektzioak, guztira, 7 urrezko domina lortu ditu, eta

domina gehien lortu dituen selektzioa izan da. Horietatik 6 CESPA-Euskadi taldeko txirrindularienak izan dira. Denera, 9 domina lortu dituzte txapelketa honetan: 6 urrezko, zilarrezko bat eta 2 bronzetako.

Leire Olaberria Palman geraturiko da aste osoan zehar hurrengo hitzordua prestatzeko helburuarekin. Munduko Kopako azken proba izango da, otsailaren 15etik 17ra Danimarkako Ballerup hirian jokatuko dena.



Alpino Uzturre elkarteko eskiatzaileek emaitza onak lortu dituzte. HITZA

Kadeteetan Skating eran, Gonzalez izan da garaile Euskadikoan

Iraupen eskia » Iraupen eskiko Euskadiko Txapelketa jokatu zen aurreko asteburuan, Aragoiko Kantantxun.

tu. Hala ere, Alpino Uzturre Elkarteko beste eskialariek emaitza onak lortu zituzten. Horren adibide da, kadeteen mailan, klasiko eran, Erlantz Gonzalez izan zela irabazle eta Skating eran Xabier Saizar. Master mailan berriaz, Lourdes Irazustak irabazi zuen eta Senior mailan Aitor Igarategik hirugarren postuan sailkatu zen klasiko nahiz skating eran.

Bestetik, Alpino Uzturreko Rojo anaiak Munduko Txapelketa jokatu zen parte hartzeko aukeratuak izan dira. Hauek junior mailako en artean leihatuko dira.

ERREDAKZIOA

Joan den asteburuan, hau da, urtarirailaren 26 eta 27an, Aragoiko Candanchun, Iraupen eskiko Euskadiko Txapelketa jokatu zen.

Joseba eta Imanol Rojo anaiak European ziren egun horietan, hori dela eta, ezin izan zuten parte har-

Hilberriak

KOLDO ALTUNA AZURMENDI
Jauna
(Haimar Altuna, euskal preso politikoaen aita)

-Goian bego-

«Hay personas que luchan un día y son buenos.
Hay otras que luchan un año y son mejores.
Hay personas que luchan muchos años y son muy buenos.
Pero hay quienes luchan toda su vida, esos son los impresionables».

MAITE ZAITUGU

ORENDAINEN
2008ko
Otsailaren 5ean

KOLDO ALTUNA AZURMENDI
Jauna
(Frantziako Meaux espetxean dagoen Haimar Altuna euskal preso politikoaen aita)

Askatasunaren bidean etenik gabe beti dek borrokatu
Nahiz bizitzak gogor kolpatu hire harrigarriko indar eta kemen hori helduaz behar diau altxatu gazteoi buruarekin borrokatzen erakutsi diguk!

IRAREN LAGUNAK

ORENDAINEN
2008ko
Otsailaren 5ean

KOLDO ALTUNA AZURMENDI
Jauna
(Frantziako Meaux espetxean dagoen Haimar Altuna euskal preso politikoaen aita)

Nahiz bizi honek emandako golpe gor hauek ezin ulertu hikin pasatako momentu ear eta baiotsuak behar dizkiau goatu herri ttiki hau ezker ukabilakin beti izan dek hik borrokatu hire ideiek utzi ditek makina bat zer ikasi ta beste hainbeste helduleku!

OREDAINGO EZKER ABERTZALEA

ORENDAINEN
2008ko
Otsailaren 5ean

KOLDO ALTUNA AZURMENDI
Jauna
(Haimar gure iloba ta lehengusu, preso politikoaen aita)

-Goian bego-

«Urruntasuna ta kristal lodiarene gainetik maite zaitugu!
Eutsi Haimar.
Muxu bat osaba!».

Jokin (hesari politikoa)
Eider, Ekaitz, Maite eta Iker (Espainia ta Frantzia gaitibu dauden euskal preso politikoa)

IBARRAN
2008ko
Otsailaren 5ean

KOLDO ALTUNA AZURMENDI
Jauna
(Haimar Altuna, euskal preso politikoaen aita)

-Goian bego-

«Urak dakarrena urak darama baina gure artean beti geldituko da zure oroimenan»

HONDARRIBIAN
2008ko
Otsailaren 5ean

Hondarribiko zure lagunak: Mertzeta eta Pablo.

KOLDO ALTUNA AZURMENDI
Jauna
(Haimar Altuna, euskal preso politikoaen aita)

Aurrera bolie!

Haimarren Amaroako koadria

ORENDAINEN
2008ko
Otsailaren 5ean

KOLDO ALTUNA AZURMENDI
Jauna
(Haimar Altuna, euskal preso politikoaen aita)

-Goian bego-

«Maite duguna aske nahi eta maite dena utzi behar, askatasuna amets dugunez beraru dugu bizi indar. Gure etxeko enborrak defendatuko ditugu.»

Agur eta ohore aita!

HAIMAR ETA IRA

ORENDAINEN
2008ko
Otsailaren 5ean

KOLDO ALTUNA AZURMENDI
Jauna
(Haimar, Meaux-Frantziako espetxean dagoen, euskal preso politikoaen aita)

-Goian bego-

«Zure gorputza erraustuko dugu, zure nahiak eta askatasun egarria iñoiz ez»

Muxu bat Haimar.

IBARRAN
2008ko otsailaren 5ean

TOLOSAKO ZURET XERAT KIDEAK

KARMEN ARBELAITZ ISASTI

Atzo hil zen, 96 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

-Goian bego-

Bere ilobak, Maria Jesus, Martin Jose eta Maria Jose Aranburu Arbelaitz, Iñaki Arbelaitz eta Xabier Ruiz, bilobak eta zaharren egoitzako langileek eta kideek haren animaren alde oitotz bat eskatzen dizuzete eta arren etor zaitetzela GAUR, arratsaldeko 19:00etan, San Esteban parroki elizan, izango den elizkizunera

OIARTZUN
2008ko
Otsailaren 5ean

GORPUA San Anton kapilan izango da 18:00ak arte

